

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4312

EBAZPENA, 2022ko irailaren 27koa, Kulturako sailburuordearena, kultura eta gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak (Bitartez deialdia) emateko Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzen dituen eta haren osaera argitaratzen duena.

Ikusirik 2022. urtean kultura eta gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko abuztuaren 30eko Agindua.

Kontuan izanda Agindu horren 12. artikulua aipaturiko dirulaguntzak emateko Balorazio Batzorde batek ebazpen-proposamena egingo duela eta Batzorde horren kideak izendatzea eta haren osaera argitaratzea Kulturako sailburuordearen ebazpen bidez emango direla jasotzen duela,

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo andrea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak: Jone Uriarte Iriarte andrea, Jokin Aspuru Zuazo jauna eta Natxo Rodriguez Arcaute jauna.

Idazkaria: Rafael Elizondo Saiz jauna (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak izan dezan horren berri.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.